

IRUNGO ESKOLAKO AGENDA 2030

2025-2026 ikasturtea

Familiei zuzendutako buletina



Eskolako Agenda 2030 programaren helburua gure ikasleak jasangarritasunaren aldeko herritar aktibo bihurtzea da, bai eskolan bai gure herrian. Ikasleak dira protagonista: ikertzen dute, hausnartzen dute eta udalerrian hobekuntzak proposatzen eta gauzatzen dituzte.

Programa bi ikasturtetan garatzen da:

- **Lehenengo ikasturtean** diagnostikoa eta esku-hartze plana diseinatzeko da.
- **Bigarren ikasturtean**, berriz, diseinatutako esku-hartze plana martxan jartzen da.

2024-2025 ikasturtean gure herriko diagnostikoa bideratu genuen adin guztietako ikasleen inplikazioarekin. Beraz, 2025-2026 ikasturtean esku-hartze planari ekingo diogu!

ZER EGINGO DUGU BIGARREN IKASTURTEAN?

- **Hasierako Udal Foroa:** ikasleek aurreko ikasturtean egindako proposamenen jarraipena egingo dute, eta Udalak bere plan eta konpromisoak azalduko dizkie.
- **Esku-hartze plana gauzatzea:** lehen urtean diseinatutako ekimenak praktikan jarriko ditugu. Horretarako, ikasleek ardura eta protagonismo handiagoa izango dute, eta tokiko eragileekin (Udala, elkarteak, beste ikastetxe batzuk...) lankidetzan arituko dira.
- **Eskolen arteko Foroa:** udalerriko ikastetxeetako ordezkariak esperientziak partekatuko dituzte eta ekintzak koordinatuko dituzte.
- **Amaierako Udal Foroa:** ikasleek udaletxeko ordezkariari aurkeztuko dizkiete egindako ekintzak, lortutako emaitzak eta hurrengo urratsak.
- **Azken ebaluazioa:** ikasturtean zehar eginiko lana baloratuko dugu, ikasleen, irakasleen eta Udalaren ekarpenak kontuan hartuta.

ZERGATIK DA GARRANTZITSUA FAMILIEN LAGUNTZA?

Familien inplikazioa funtsezkoa da ikasleek egiten duten lanari jarraipena emateko eta ikasitakoa egunerokoan txertatzeko. Etxean ere jasangarritasunarekin lotutako ohituretan (kontsumoa, mugikortasuna, energiaren erabilera...) lagundu dezakezue, haurrek ikasitakoa indartuz.

ESKERRIK ASKO ZUEN LAGUNTZAGATIK ETA PARTE-HARTZEAGATIK. GUZION ARTEAN GURE HERRIA ETA GURE PLANETA JASANGARRIAGO EGITEN ARI GARA!



AGENDA 2030 ESCOLAR DE IRUN

Curso 2025-2026

Boletín para las familias



El programa **Agenda 2030 Escolar** tiene como objetivo que nuestro alumnado se convierta en ciudadanía activa a favor de la sostenibilidad, tanto en la escuela como en nuestro municipio. Las y los estudiantes son protagonistas: investigan, reflexionan y proponen y desarrollan mejoras en el municipio.

El programa se desarrolla en **dos cursos escolares**:

- En el **primer curso** se realiza el diagnóstico y se diseña el plan de intervención.
- En el **segundo curso**, se pone en marcha el plan de intervención.

En el curso 2024-2025 llevamos a cabo el diagnóstico de nuestro municipio con la implicación de alumnado de todas las edades. Por tanto, en el curso 2025-2026 ¡pasaremos a la acción con el plan de intervención!

¿QUÉ HAREMOS EN EL SEGUNDO CURSO?

- **Foro Municipal de inicio de curso:** el alumnado dará seguimiento a las propuestas realizadas el curso anterior, y el Ayuntamiento presentará sus planes y compromisos.
- **Ejecución del Plan de Intervención:** pondremos en práctica las iniciativas diseñadas en el primer curso. Para ello, el alumnado asumirá mayor responsabilidad y protagonismo, colaborando con agentes locales (Ayuntamiento, asociaciones, otros centros escolares...).
- **Foro Interescolar:** representantes de los distintos centros del municipio compartirán experiencias y coordinarán acciones.
- **Foro Escolar de fin de curso:** el alumnado presentará a los representantes municipales las acciones realizadas, los resultados obtenidos y los próximos pasos.
- **Evaluación final:** valoraremos el trabajo realizado a lo largo del curso, teniendo en cuenta las aportaciones del alumnado, profesorado y Ayuntamiento.

¿POR QUÉ ES IMPORTANTE EL APOYO DE LAS FAMILIAS?

La implicación de las familias es fundamental para dar continuidad al trabajo del alumnado y trasladar lo aprendido a la vida cotidiana. También podéis colaborar reforzando en casa los hábitos relacionados con la sostenibilidad (consumo responsable, movilidad, uso de la energía...).

GRACIAS POR VUESTRO APOYO Y PARTICIPACIÓN. ¡ENTRE TODAS Y TODOS ESTAMOS CONSTRUYENDO UN MUNICIPIO Y UN PLANETA MÁS SOSTENIBLES!

